

SANTI BROUARD

Bi irudi: Gizon bat

SANTIREN hainbat irudi ikusi dugu egun hauetan. Guztien artean bi sartu zaizkit bereziki barruraino: Santi ukabila jasota, borrokariaren irudia; Santi, fonoskopia eskuetan, haurtxoaren gain makurtuta.

Gizon berbera: Santi Brouard. Gizona!

BI esanahiak ditu hemen biziaren aldeko borrokak. Bizirik irauteko borroka, batetik; euskaldun bezala Euskal Herri biziaren, irentsi eta suntsitu nahi gaituztenen aurka; eboluzionismoaren borroka, nahi baduzue, baina makalaren bizitzaren defentsarako, ez indartsuaren gailentasun agresiborako. Bizia berritzeko eta zabaltzeko borroka, bestetik: mundura etorriberriak diren haurrak bizitzarako gaituz.

Biziaren borrokalaria zen Santi: zutik, ukabila gora, eta kuturturik, haurrari begira. Bi lanbide: biak elkarrekin loturik. Mundu latz honetako etsai naturalen artean bizitzeko haurrak gaitzen eta indartzen saiatu da Santi, pediatra gisa: gizarte doilor honetako etsai bizi-zurgatzaileen aurka giza bizitza jatorra eta librea egin ahal izateko bizinguru sozial berria eratzten saiatu zen Santi, iraultzaile gisa. Zertarako bizitzarako prestatu haur berriak, gizontzeko nahiz emakumetzeko gizarte zuzena eta Herri librea ukatuko bazaizkie?

Bizitzarako erresistentzia da pediatraren asmoa: erresistentziatzeko bizitza da borrokariaren ogia: askatasunerako bizingurua da iraultzailearen helburua.

Horixe zen Santi Brouard. Bere goiburua: Haur berriak mundurako, mundu berri bat haurrentzat.

BEREN haur izutuen garrasiak gozatzen ezagutu duten ama asko, mitinetan, bilertan eta elkarrizketetan bere eritzi politikoak tinko azaltzen ezagutu duten hainbat politikari eta herritar,

Paulo

AGIRREBALTZATEGI

une gogor eta latzetan (Gernikako juntaetxean erregearen aurrean, manifestaldietan, gartzelan, borrokan hildakoen omenaldietan) ikusi dutenak lagun guztiak bat etorri dira: Gizon leuna, gozoa, irekia, maitagarria, tolesgabea zen Santi. Zintzoa zen.

Eta askok galdetu du, nolatan izan zitekeen iraultzailea hirurogei eta lau urteko gizon baketsu hori. Ez bait zuen ematen askoren buruan dagoen iraultzailearen irudia: garratza, ozpintua, azpikeriaz bete, begigogorra, amorekaitza, Gazte buruberoa.

Ba du gainera konserbakortasunak sarritan bere «adinen filosofia» berezia, bere ideologia zuritzeko. Horren arabera, gazteari onartzen zaio iraultzailea izatea, bere historiari eta ezer defenditzekorik ez omen daukalako: baina adineko zuhurrari bere segurtasuna defenditzea dagokio nonbait. Hortxe oinarritzen da agian gazte «iraultzailearen» bilakaera, adineko kontserbakor bihurtzeraino.

Bestelako filosofia zuen Santik: bere lanbide eroso, goraki ezagutua, aintzat hartua eta guztiak preziatua zuen; baina bere lanbidearen eta bizibide seguruaren gainetik ipini zuen bere abertzaletasuna eta iraultzailearen hitza. Euskal Herri langilearen askatasunaren aldeko borroka aukeratu zuen, bere segurtasun ekonomikoa arriskutan jartzearaino eta bere lanbidea bertan behar utzi behar izateraino.

Iraultzaren izpirituak ez du adinik. Gaztetako iraultzaile faltsuak, bere interes pribatua edota botere pertsonala nahiz bere buruaren gorakada eta nabarmentzea bilatzen duena, nolabaitekeo iraultzaren hitz eta hots ozenen artean bada ere, hura bilakatzen da gerora, «heldutasunean», kontserbakorra eta erre-

zionarioa. Bere bizitza osoan izan dena agertzen da, besterik ez.

Benetako abertzaletasunak eta iraultzailetasunak, ordea, ez dute adinik. Santi Brouardek erakutsi digunez.

EZ du adinik, baina ba du bere heldutasun-prozesua izpiritu abertzale iraultzaileak. Abertzalea iraultzaileagan nola «helduz» den erakutsi digu Santik. Abertzale heldua zen bera. Iraultzailea zen.

Baina euskal abertzaletasunari iraultzaile izateak bakarrik ematen badio heldutasuna, era berean esan daiteke euskal iraultzaileari abertzaletasunak ematen diola heldutasuna. Santik, berriz, euskal abertzale eta iraultzaile helduaren irudia eta erdua eman dizkigu denoi: horixe ezagutu eta aitortu du egun hauetan herriak.

Bost ezaugarri nabarmentzen zaizkit Santi abertzale iraultzaile helduagan: bere usteetako tinkotasuna, etsaiekiko irekitasuna, lagunaren eritzi ezberdinen sintesi-gaitasuna, guztiarik leialtasuna, borrokarako jarkikortasuna (erresistentziarako indarra).

Zalantzarik ez dago izpiritu iraultzaileak helduz joan behar duela: seguruenik ez da sortzen iraultzailea: landu egiten da: heldu egiten da. Adinarekin batera helduz doan iraultzailetasuna da benetakoa; ez urteekin batera kontserbakor eta erreakzionario bihurtzen dena.

Txomin Agirrek *Garoa* nobela hasten duen hitzekin amaienezake Santi Brouarden gogorapen eta gorapen hau: «Hura zen gizona, hura!»! Joanes haren eta Santi honen arteko ezberdintasunak eta kontrakotasun nabariak kontutan hartuz, jakina.

OHARRA:

Joan den asteko «Azkena» Iparraldeko «Ateka» hilabetejaritik euskaratua zen, argitasun hau ipintzea ahaztu genuen arren.